



DONOSTIA  
SAN SEBASTIÁN



[www.donostikultura.eus](http://www.donostikultura.eus)

## JOSEBA TAPIAK ESKURATUKO DU 9. ADARRA SARIA

Jose Joaquin Forcada *Forki* kazetariak, Auria Etxeandia EGOKo komunikazio arduradunak eta Esther Fernandino Donostia Kulturako Musika ataleko teknikariak osatutako Aholku Batzordeak aho batez erabaki du aurtengo Adarra Saria Joseba Tapia musikariari ematea.

Saria ematerakoan, kontuan hartu dira Joseba Tapiaren ibilbide luzea, moldakortasuna (era askotako estiloetan eta musikari handi askorekin frogatu baitu bere musika-bikaintasuna), herri-musikaren ondarea kontserbatu eta zabaldu izana, eta hainbat eta hainbat pieza berri konposatu izana, bai eta akordeoiak askotariko musika-ingurune eta giroetan duen gaurkotasuna frogatu izana ere.

Adarra Saria jasoko zuela jakindakoan, hauxe adierazi zuen Joseba Tapiak: “Aurretik sarituak izan diren euskal kantari horien belaunaldiko, ekipoko, taldeko sentitzen naiz. Euskal kantari profesionalak gara eta borrokan ari gara euskararen eta artearen alde. Sari hau nire izenean badator ere, nirekin ibili diren eta dabiltzan musikari, teknikari eta profesional guztiekin partekatu nahiko nuke”.

Joseba Tapiak ekainaren 21ean, Musikaren Europako Egunean, arratsaldeko 19:30ean, Victoria Eugenia Antzokiko oholtzan jasoko du Marijose Rekalde eskultoreak egindako sariaren garaikurra, Eneko Goia Donostiako alkatearen eskuak, eta segidan bere azken diskoa, *Egon edo ez egon*, aurkeztuko du musikari hauez lagunduta: Nerea Erbiti (ahotsa), Olaia Inziarte (ahotsa), Kristina Aranzabe (ahotsa), Iñigo Telletxea (gitar apala), Iker Uriarte (jazbana), Jexux Aranburu (teklatua), Ion Celestino (tronpeta), Amets Aznarez (tronboia), Ibon Irrixoa (saxofoi tenorra) eta Mixel Ducau (saxofoi alta).

Kontzerturako sarrerak gaur, apirilak 6, jarri dira salgai, 18 euroan, Victoria Eugenia Antzokiko eta Antzoki Zaharreko leihatiletan eta [www.donostikultura.eus/sarrerak](http://www.donostikultura.eus/sarrerak) webgunean.

Kontzertu honek Tapiak apirilaren 28an Victoria Eugenia Antzokian eman behar zuen kontzertua ordezkatuko du eta sarrerak ekainaren 21eko kontzerturako baliagarriak izango dira.

Donostiako Udalak eta Donostia Kulturak 2014an sortu zuen Adarra Saria, euskal musikaren arloan garrantzi edo eragin bereziko ibilbidea egin duen edo egiten ari den artista bati, urtero, omen egiteko. Orain arte Mikel Laboak, Ruper Ordorikak, Benito Lertxundik, Fermin Muguruzak, Anarik, Berri Txarrak taldeak, Kepa Junkerak eta Amaia Zubiriak jaso dute Adarra Saria.

### KOMUNIKAZIOA COMUNICACIÓN

Erregina Erregeordea, 8 – 20003 Donostia / San Sebastián  
T. (0034) 943 481 151 E. [kultura\\_komunikazioa@donostia.eus](mailto:kultura_komunikazioa@donostia.eus)  
[www.donostikultura.eus](http://www.donostikultura.eus)



## JOSEBA TAPIA (Lasarte-Oria, 1964)

Joseba Tapiaren ibilbidea bi norabidetan banatzen da: alde batetik, trikitixa eta erromeria; eta bestetik, kantagintza.

Txikitian ezagutu zituen biak. Aitaren familiatik trikitixaren mundua eta amarenetik euskal kantagintza berria. Aitaren bi anaia trikitilari ospetsuak ziren eta Joseba aho zabalik egoten zen haiei begira. 7 urterekin *Andre Madalen* atera zuen soinu txiki batekin. Ostera, amaren anai gazteenak Ez dok Hamahiruren kontzertuetara eramaten zuen eta gitarra klasikoarekin haien kantuak kantatzen hasi zen oso gazterik. Geroago nerabezaroan Beatles eta rock mundua.

Bere ibilbide musikallean eta diskografikoan bi adar hauek ageri dira nabarmen.

Alde batetik, Tapia eta Leturiarekin egindako ibilbidea: trikitixaren eta erromeriaren mundua aztoratu zuten. 1987an argitaratu zuten lehen diskoa. Guztira zortzi disko kaleratu zituzten eta Nazioarteko folk jaialdi garrantzitsuetan ibili.

Bestetik, kantagintza. 1998an bakarkako bidea hasi zuen.

Koldo Izagirrerekin batera argitaratu zuen bakarkako lehen lana: *Apoaren edertasuna*. Soinu hutsez lagundurik kantuaren ageri da Koldorekin batera. Ipuin bat, ipuin heldu bat, abere (ustez) itsusi baten ahotsean. Txikitasunaren eta edertasunaren aldarria.

1999an Quebec-eko kantagintza modernoaren antologia bat argitaratu zuen hango kantu garrantzitsu eta esanguratsuenen bilduma bat. *Hamalau kantu independentziarako* Koldo Izagirre eta Itxaro Bordak itzulirik eta Pascal Gaigne, Arkaitz Miner eta Ritxi Salaberriaren, gitarra, arrabita eta kontrabaxuarekin.

2001ean *Agur Intxorta Maite* 1936-37ko Euskal kantutegi antifaxista Koldo Izagirrerekin batera aurkitu eta eskaini zigun Joseba Tapiak.

2006an Arkaitz Miner eta Jexux Aranbururekin *Real Politik* izeneko diskoa grabatu zuten. Euskal Herriko lehengo eta oraingo poeten testuekin osatutako kantutegia. Bitxikeria moduan Jacques Prevert-en eta Joseph Kosma-ren kantu bat, *Umearen ehiza*, eta Bertolt Brecht-en eta Kurt Weill-en *Bilbaoko iretargi*-ren bertsioak.

### KOMUNIKAZIOA COMUNICACIÓN



DONOSTIA  
SAN SEBASTIÁN



donostia  
kultura

[www.donostiakultura.eus](http://www.donostiakultura.eus)

2010ean *Eta tira eta tunba* karlisten eta liberalen arteko gerran sortutako kantutegi euskalduna gai hartu zuen. Metalezko banda handi bat 10 lagunez osatua. XIX. mendeko banda militarra.

2013an kartzelaldia. *Tximela Kapitainaren izarrak*. Luis Rezola gazte kapitainak Duesoko kartzelatik idatzitako bertsoekin osatua.

2017an Besamotzak talde elektrikoa aurkeztu zigun Joseba Tapiak Iker Uriarte, Iñigo Telletxea eta Dani Narbarterekin. Bere bakarkako ibilbideko kantuekin osatutako lehen bilduma.

2019an osatu zuen gaur egungo banda. Bederatzi lagunez osatutako banda. Metalez, koruez, eta base soul estilokoa osatuz. “*Tranpaldo*” izan zen bere kantutegiarekin osatutako bigarren bilduma. Moldaketa korapilatsuagoetan muturra sartuz.

2021an *Egon edo ez egon* diskoa Koldo Izagirreren testuekin osatua. Bere ohiko bandaz aparte Et Incarnatus orkestrarekin zenbait kantu ageri dira.

#### KOMUNIKAZIOA COMUNICACIÓN

Erregina Erregeordea, 8 – 20003 Donostia / San Sebastián  
T. (0034) 943 481 151 E. [kultura\\_komunikazioa@donostia.eus](mailto:kultura_komunikazioa@donostia.eus)  
[www.donostiakultura.eus](http://www.donostiakultura.eus)

## JOSEBA TAPIA, 9º ADARRA SARIA

Jose Tapia recibirá el Adarra Saria de este año a propuesta del Comité Asesor formado por el periodista José Joaquín *Forcada Forki*, la responsable de comunicación de la EGO Auria Etxeandia y Esther Fernandino, técnica de Música de Donostia Kultura.

El premio se le ha concedido teniendo en cuenta su dilatada carrera, su versatilidad (habiendo demostrado su excelencia musical en muy variados estilos y en compañía de un gran número de músicos de marcada importancia). La conservación y difusión de un acerbo musical popular, la composición de un gran número de nuevos temas y su labor demostrando la vigencia musical del acordeón en muy diversos contextos musicales.

Al recibir la noticia, Joseba Tapia ha declarado: "Me siento compañero de generación y colega de los cantantes vascos premiados antes que yo. Somos cantantes vascos profesionales que luchamos en favor del euskera y del arte. Aunque este premio me lo den a mí, quisiera compartirlo con todas y todos los músicos, técnicos y profesionales con los que he trabajado y trabajo habitualmente".

Joseba Tapia recibirá el premio, una escultura creada por Marijose Rekalde, el día 21 de junio, a las 19:30 horas, en el escenario del Teatro Victoria Eugenia, de la mano de Eneko Goia, alcalde de Donostia/San Sebastián, y a continuación presentará su último disco, *Egon edo ez egon*, acompañado de un numeroso grupo de músicos: Nerea Erbiti (voz), Olaia Inziarte (voz), Kristina Aranzabe (voz), Iñigo Telletxea (bajo), Iker Uriarte (orquestina), Jexux Aranburu (teclados), Ion Celestino (trompeta), Amets Aznarez (trombón), Ibon Irixoa (saxo tenor) y Mixel Ducau (saxo alto).

Las entradas para el concierto ya están a la venta al precio de 18 euros en las taquillas del Teatro Victoria Eugenia y Teatro Principal y en la web [www.donostikultura.eus/entradas](http://www.donostikultura.eus/entradas).

Este concierto sustituirá al concierto que Tapia iba a ofrecer el 28 de abril en el Teatro Victoria Eugenia. Las entradas serán válidas para la nueva fecha.

El Ayuntamiento de Donostia / San Sebastián y Donostia Kultura crearon este premio en 2014 con el objetivo de reconocer con carácter anual la labor de un o una artista que, en el terreno de la euskal musika, haya desarrollado o esté desarrollando una carrera de especial relevancia e influencia. Hasta la fecha han recibido el premio Mikel Laboa, Ruper Ordóñez, Benito Lertxundi, Fermín Muguruza, Anari, Berri Txarrak, Kepa Junkera y Amaia Zubiría.

### KOMUNIKAZIOA COMUNICACIÓN

Erregina Erregeordea, 8 – 20003 Donostia / San Sebastián  
T. (0034) 943 481 151 E. [kultura\\_komunikazioa@donostia.eus](mailto:kultura_komunikazioa@donostia.eus)  
[www.donostikultura.eus](http://www.donostikultura.eus)

## JOSEBA TAPIA (Lasarte-Oria, 1964)

La carrera de Joseba Tapia sigue dos direcciones: por un lado, la trikitixa y la romería; por el otro, la canción.

Conoció ambos caminos en su infancia. El mundo de la trikitixa por parte de la familia paterna, y el de la canción vasca moderna a través de la materna. Dos hermanos de su padre eran trikitilaris muy conocidos, y Joseba se quedaba mirándolos con la boca abierta. A los siete años consiguió tocar él solito *Andre Madalen* con un acordeón pequeño. Por su parte, el hermano más joven de su madre lo llevaba a los conciertos de Ez Dok Amairu, y ya muy joven empezó a tocar sus canciones con la guitarra acústica. Más tarde, ya adolescente, vinieron los Beatles y el mundo del rock.

En su trayectoria musical y discográfica, quedan patentes dos vertientes.

Por un lado, el camino recorrido con Tapia eta Leturia, que puso patas arriba el mundo de la trikitixa y de la romería. En 1987 publicaron su primer disco, y tras él vinieron los demás, hasta un total de ocho. Además, han actuado en los festivales de folk internacionalmente más importantes.

Por otro lado, la canción. En 1998 emprendió su carrera en solitario.

Publicó su primer trabajo junto con Koldo Izagirre, *Apoaren edertasuna*, cantando junto a él acompañado únicamente de su acordeón. Un cuento, un cuento adulto, en la voz de un animal supuestamente feo. La reivindicación de lo pequeño y hermoso.

En 1999 publicó una antología de la canción moderna del Québec, una selección de entre las canciones más importantes y significativas, *Hamalau kantu independentziarako*, en traducción de Koldo Izagirre e Itxaro Borda, con Pascal Gaigne, Arkaitz Miner y Ritxi Salaberria a la guitarra, el rabel y el contrabajo respectivamente.

El año 2001 nos ofreció el cancionero antifascista *Agur Intxorta maite*, un hallazgo realizado junto a Koldo Izagirre.

En el 2006 grabó el disco *Real Politik* junto con Arkaitz Miner y Jexux Aranburu. Un cancionero con textos de poetas vascos tanto de antaño como actuales. Como peculiaridad, una canción de Jacques Prévert y Joseph Kosma, *Umearen ehiza*, y las versiones de *Luna de Bilbao (Bilboko iretargi)* de Bertolt Brecht y Kurt Weill.

### KOMUNIKAZIOA COMUNICACIÓN

Erregina Erregeordea, 8 – 20003 Donostia / San Sebastián  
T. (0034) 943 481 151 E. [kultura\\_komunikazioa@donostia.eus](mailto:kultura_komunikazioa@donostia.eus)  
[www.donostia-kultura.eus](http://www.donostia-kultura.eus)



DONOSTIA  
SAN SEBASTIÁN



donostia  
kultura

[www.donostiakultura.eus](http://www.donostiakultura.eus)

En 2010 publica *Eta tira eta tunba*, trabajo sobre el cancionero que se desarrolló en euskera durante las guerras entre carlistas y liberales. Una gran banda de metal formada por diez componentes. Una banda militar del siglo XIX.

En 2013, una visita a la cárcel, *Tximela kapitainaren izarrak*, utilizando como material los versos escritos en la prisión del Dueso por el joven capitán de guardia Luis Rezola Tximela.

En 2017, Joseba Tapia nos presentó el grupo eléctrico Besamotzak, en el trabajo del mismo nombre, junto a Iker Uriarte, Iñigo Telletxea y Dani Narbarte. Se trata de la primera colección de canciones propias en su trayectoria.

Fue en 2019 cuando formó la banda actual, que cuenta con nueve miembros. Metales, coros y una base de estilo soul. La segunda colección de canciones propias la constituyó *Tranpaldo*, donde se adentra en un terreno de arreglos más complicados.

En 2021, saca el disco *Egon eta ez egon*, con textos de Koldo Izagirre, en el que, además de su banda, le acompaña la orquesta Et Incarnatus en algunas canciones.

#### KOMUNIKAZIOA COMUNICACIÓN

Erregina Erregeordea, 8 – 20003 Donostia / San Sebastián  
T. (0034) 943 481 151 E. [kultura\\_komunikazioa@donostia.eus](mailto:kultura_komunikazioa@donostia.eus)  
[www.donostiakultura.eus](http://www.donostiakultura.eus)